ELA
EUSKAL SINDIKATUA

# Gipuzkoako Metala

berriak

## Auzitegi Gorenaren azken epaiaren ondotik,

# GURE ESKUBIDEAK BLINDATUZ JARRAITU BEHAR DUGU

Auzitegi Gorenak bere epaia eman berri du **(*)** sindikatuen demanda bati buruz, ADEGIk bere kideei bidalitako jakinarazpen baten inguruko demandari, hain zuzen. Auzitegi Gorenak ez du zehaztu probintzia-hitzarmena indarrean dagoen edo ez, esan du aipaturiko jakinarazpena "programa, jarraibide edo oinarrizko dokumentu bat baino ez dela enpresentzat", eta "aholkularitza-jakinarazpen soil bat dela, hitzarmenaren indarraldian eragiten ez duena".

Gaurko egunean, lan-erreforma onetsi eta hiru urte geroago, Gipuzkoako Metalgintzaren Hitzarmena gutxienekotzat hartzen da normaltasun osoz, eta hori berri ona da. Lan-erreformaren aurkako borroka erronka handia izan da, baina lan gogorra eginez eta antolamendu bidez lortzen ari garena ez da makala: Gipuzkoako metalgile gehienek lan-erreformatik blindaturiko enpresa-hitzarmenak izatea.

Auzitegi Gorenak dioena dioela (epaileak ez dira izendatuak izan, langileen borrokaren aldekoak izateagatik hain zuzen), eta patronalak nahi duena nahi duela ere, ELAren asmoa lan-erreforma Euskal Herrian paper errea izatea da, eta gure zorionak eman nahi dizkiegu lan-erreforma alde batera uztera beren enpresak behartu dituzten guztiei. 10, 15 edo 25 langileko enpresetan ere hitzarmenak blindatzen lortzen ari gara, eta harro gaude horretaz. ELAk ez ditu bertan behera utzi ETEetan lan egiten dutenak, sindikatu guztia jarri dugu beraien beharrak asetzeko.

**Berariaz aipatu beharrekoa da ADEGIren jarrera.** Pello Gibelalde, ADEGIko burua, egiatia da, eta hori behintzat aitortu behar zaio. Baina duen pentsamolde anakroniko eta klasista, eta egiten dion arbuioa jotzen duen doinura dantzatzen ez duenari berdinak dira pribatuan zein jendaurrean. Kezkatzekoa da Gipuzkoako enpresariek ez izatea ordezkari duinagorik. Enpresarien artetik ez da ahots kritikorik entzun, Gibelalderen azken adierazpenak direla-eta. Agian bat datoz esandakoarekin? Haiek ere uste dute gure gazteak alfer hutsak direla? Langabeak errudun al dira lanik ez izateagatik?

Batzuok urtetan ari izan gara erreformaren nondik norakoa azaltzen enpresetan, eta aurre egiten ere bai; beste batzuek aldiz langileen bizkar negoziatzen dute, eta azkenean apurrengatik sinatzen dute. Urriaren 7an Madrilen, "Metal Sektorearen estatu-hitzarmenaren negoziazio-batzordearen" 15. bileran CCOOek eta UGTk berriro esan zuten "estatu-hitzarmen bat eraiki nahi dutela, sektorea blindatzeko" **(**)**. Hitzarmen hori sinatzen badute, eraso zuzena izango da probintzia-hitzarmenaren aurka, eta behin betiko desagerraraziko du. Auzitegi Gorena ez da hainbesteraino ausartu, baina CCOO eta UGT ausartuko dira. Eskandaluzkoa da.

**(*) Auzitegi Gorenaren epaia eskuragarri ELAren lokaletan.**

**(**) Madrilgo bileraren akta eskuragarri ELAren lokaletan.**



ELA EUSKAL SINDIKATUA

# Metal de Gipuzkoa

berriak

## Tras la última sentencia del Tribunal Supremo,

# A SEGUIR BLINDANDO NUESTROS DERECHOS

El Tribunal Supremo ha dictaminado sentencia **(*)** sobre la demanda interpuesta por los sindicatos contra una comunicación de ADEGI a sus asociados. El TS no determina si el provincial está vigente o no, dice que la citada comunicación "no deja de ser un programa, directriz o documento base para las empresas" y que es "una simple comunicación de asesoramiento, que no incide en la eficacia del convenio".

A día de hoy, tres años después de la aprobación de la reforma laboral, el metal de Gipuzkoa se aplica como base mínima con normalidad, y eso es una buena noticia. La lucha contra la reforma laboral ha sido un gran reto, y con mucho trabajo, con mucha organización, estamos consiguiendo que una mayoría de los y las metalúrgicas de Gipuzkoa hayan conseguido convenios de empresa blindados ante la reforma .

Independientemente de lo que diga el TS (un Tribunal con jueces nombrados no precisamente por ser defensores de la lucha obrera) o de lo que quiera la patronal, ELA quiere que en Euskal Herria la reforma laboral sea papel mojado, y queremos felicitar a todos y todas las que con su lucha han obligado a su empresa a comprometerse a no aplicar artículo alguno de la reforma laboral. En empresas donde los y las trabajadoras son 10, 15 ó 25 estamos consiguiendo blindar convenios, y esto nos llena de orgullo. A quienes trabajan en las pymes, ELA no sólo no los deja de lado sino que ponemos toda nuestra organización a su servicio.

**Capítulo aparte merece la actitud de ADEGI.** Tenemos que reconocer a su Presidente, Pello Guibelalde, que al menos es sincero. Su mentalidad anacrónica, su pensamiento clasista y su desprecio a quien no le ríe las gracias es la misma en privado y en público. Que los y las empresarias de Gipuzkoa no tengan una persona más digna para representarlos nos genera una gran preocupación. No hemos escuchado entre el empresariado ninguna voz crítica ante las últimas palabras de Guibelalde: ¿acaso las comparten?, ¿consideran también que nuestra juventud es vaga?, ¿son los y las desempleadas las culpables de su situación?...

Mientras algunos llevamos años explicando la reforma en las empresas, y combatiéndola, otros siguen haciendo lo de siempre: negociando a espaldas de los y las trabajadoras firmando miseria. El 7 de octubre, en Madrid, en la reunión número 15 de "la comisión negociadora del convenio estatal del sector del metal", CCOO y UGT volvieron a señalar que quieren "construir un convenio estatal para blindar el sector" **(**)**. Este convenio, de ser firmado, supondría un ataque directo al provincial, ayudando a su desaparición. Ni lo que el TS se ha atrevido a hacer lo pueden lograr CCOO y UGT. Es un escándalo.

**(*) Sentencia del TS, a disposición en los locales de ELA.**

**(**) Acta de la reunión de Madrid, a disposición en los locales de ELA.**

